



H IRUTXULOKO
HITZA

æk HITZEN

æk
23.korrika
HARRO
HERRI

Irundik Balonarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

23. Korrika

BARNE DISEINUA ALTZARIAK

Ametzagaña 7
Egia · Donostia
www.apal.eus
943 320400
info@apal.eus



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

Euskaraz jardun eta lantzeko talde ezberdinak ditugu:
erretiratuak, alfabetatzea, titulu homologatuak
(A1, A2, B1, B2, C1, C2), autoikaskuntza, mintzamena...



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus

Badator!

Dagoeneko igaro dira bi urte, eta hemen da berriz ere Korrika, 23. aldiz. Atzo abiatu zen Irundik, eta Ipar Euskal Herri osoa zeharkatzen ari da gaurkoan, ondoren Nafarroara sartzeko. Astebete falta da oraindik lekukoa Donostiara heltzeko, baina ziur donostiar bat baino gehiago zegoela atzo Irunen AEKren furgoneta jarraitzen eta euskararen alde korrika egiten; bejondeizuela!

Bejondeizuela, baina gorde indarrak hurrengo larunbaterako, orduan zeharkatuko baititu Korrikak gure hiriko kaleak, Martutenetik sartuz eta Alztatik ateraz.

Duela bi urtekoa izugarria izan zen, besteak beste, pandemiaren osteko lehenengo herri egitasmo erraldoia izan zelako eta, gainera, Donostian bukatu zelako, festa handi batekin. Oraingoan ez da hala izango, baina festarekin

ala gabe, Korrikarekin giro paregabea egoten da Donostian beti, eta aurten ez dugu gutxiago espero.

Korrika hirira iritsi bitarte, hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzun edukiak irakurriz berotu ditzakezu motorrak, eta, besteak beste, Korrika Kulturalako auzoz auzoko egitarauak ere aurkituko dituzu, egunotan Korrika giroan murgiltzeko.

Donostiako auzo ia guztietatik igaroko da Korrika, lauzpabost orduz ibiliko baita hiritik, eta ehundik gora eragilek hartuko dute lekukoa, milaka euskaltzaleren laguntzarekin. Eta zuk non harrapatuko duzu Korrika? *Harro Herri* da aurtengo leloa, eta hortxe dugu erronka: egin dezagun harro egoteko moduko Korrika bat, ondoren harro egoteko moduko herri bat eraikitzeko.



DONOSTIAKO HEDABIDEAK E.M.
Ametzagaña, 19, behea
20012 DONOSTIA
Tel: 943-46 72 36

Argitalpen data: 2024ko martxoaren 15a.

Lege gordailua: SS-0226/05

Testuak: Nagore Garmendia Artano, Jon Iriarte Mendiola, Asier Gonzalez de San Pedro Abarrategi eta Beñat Parra Rodriguez.

Argazkiak: Irutxuloko Hitza / AEK.

Maketazioa: Oier Arribas Ciria.

Azaleko argazkia: Jon Xabier Zabala.

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio.

Irutxulo
.hitza
.eus

«Oso eskertuta gaude jendeak Korrikari ematen dion babesarengatik»

Aitziber Otegi | AEK-ko irakaslea eta Donostiako Korrikako koordinatzailea



Martxoaren 23an pasatuko da 23. Korrika Donostiatik. Prestakuntzak lan handia dakarrela, baina emozioz beteriko ekintza dela azaldu du Aitziber Otegi, Donostiako Korrikako koordinatzaileak.

Nolakoa da Korrikaren prestaketa?

Nik Donostiako Korrikari buruz hitz egin dezaket, soilik. Beti dago arduradun edo koordinatzaile bat, kasu honetan ni, eta Korrika 2024an baldin bada, 2023ko apirila aldera Korrika nagusiaren Euskal Herriko ibilbidea zehaztuta dago dagoeneko. Guri Donostian daukagun kilometroak esaten dizkigute, eta bertako ibilbidea egiten dugu guk. Maiatzerako, eskualde bakoitzeko ibilbidea antolatuta dago, gutxi gorabehera. Azkeneko momentuko aldaketa batzuk ere izaten dira, noski.

Irailean edo urrian, hainbat konturekin hasten gara; mezuarekin, kasu. Nahiz eta Korrika martxoan edo apirilean izan, koordinatzaileak gure eskualdekoa antolatzen gabilta ordurako, eta hilabetean behin elkartzen gara. Aurreko urteetako eragileak begirutzen hasten gara, zer egin izan den auzo bakoitzean, nola antolatu izan diren gauzak... Urtarrilean, eragile-





Aitziber Otegi eta Karlos Almonacid, AEK-k Parte Zaharrean aurten jarri duen Korrika Dendan.

kin eta auzo batzordeekin harremanetan jartzen gara eta materiala ematen diegu. Korrika nagusirako, eragileei lehen gonbidapen gutuna bidaltzen diegu, eta, gero, gonbidapen irekia egiten da.

Zenbat pertsonek hartzen dute parte antolakuntzan?

Donostian, hamabi auzo batzorde inguru daude. Horieta bakoitzean, batez beste, bost edo sei pertsona daude, bileretan. Euskaltegietan, irakasleez gain, jende gehiago dago laguntzen. Korrika Txikietan, eskolek antolatzen dituztenetan, irakasleak daude, gurasoak... Ez nintzateke ausartuko esatera zen-

«Donostian, 140-150 inguru izango dira lekukoa hartuko duten eragileak»

bat jende dabilen atzetik. Oso eskertuta gaude jendeak Korrikari ematen dion babesarengatik eta erakusten duen interesarengatik.

Zenbat eragile edo pertsonek hartuko dute lekukoa aurten?

Euskal Herrian ez dakit, baina Donostian, 140-150 inguru izango dira. Familiak, kuadrillak, elkarte-

ak, enpresak... Ez dugu inor kanpogan utzi nahi izaten, baina batzuetan ezinezkoa da, ditugun kilometroak ditugulako. Saiatzen gara, hala ere, parte hartu nahi duen jende guztia sartzen. Norbanakoren batek deitu izan du esateko Korrika batzorderen batean parte hartu nahi duela. Gehien ikusten dena lekukoa eramatearena da, baina badaude beste modu asko laguntzeko.

2022an izan zen pandemia ondorengo lehen Korrika, eta, gainera, Donostian bukatu zen. Nola gogoratzen duzu egun hura?

Ikaragarria. Ez dakit pandemiaren





«Gogoratzen dut 07:30ean autoan sartu nintzela Añorgan, eta negarrez hasi nintzela»

ondoren egiten zen lehen ekitaldi erraldoia izan zelako, jendea ere gogotsu zegoelako... Egia da Korrika gero eta dimentsio handiagoa hartzen ari dela. Gogoratzen dut 07:30ean autoan sartu nintzela Añorgan, eta negarrez hasi nintzela. Hainbeste jende zegoen leku guztietan... kontatzean ere hunkitu egiten naiz. Ibilbide guztia oilo-ipurdiarekin pasatu nuen, gure lana eskertu nahian zebilen jendearen erantzunarekin. Sarritan errepikatu genuen autoan: «Zertan ari gara, zer

egin dugu, zer da hau». Hitz egin ezinik iritsi ginen Bulebarrera.

Nolakoa izango da Korrika Donostian aurten?

Euskara taldeak daude auzoetan, batzordeak, urtean zehar egitasmoak prestatzen dituztenak. Hauek dira, Korrika garaian, beren auzoetan zerbait prestatzeaz arduratzen direnak. Aurten, gainera, Korrika arratsaldean pasatzen denez, aukera ematen du goizetik giroan sartzeko. Bazkariak, jolasak... txarangak ere egongo direla bada-kigu. Lan handia egiten dute. Herriaren laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke hau guztia.

Guri pena ematen digu auzoei protagonismo hori kentzea. Hor-taz, euskallegien arteko zerbait egiten dugu, gure ikasleei begira, agian ez direlako ausartzen auzo

batzorde batean sartzera edo egitasmoren batean parte hartzera. Martxoaren 2rako jolas bat prestatu genuen guk, Parte Zaharrean zehar; hori izan da guk antolatutako jarduera bakarra.

Zein da zuen lana Korrika Donostia-tik pasatzen den egunean?

Kilometroak markatzea, leku zehatz batzuetan egotea, petoak banatzea... Egun gogorra izaten da guretzat, tentsio handikoa. Dena ondo ateratzea nahi dugu eta zerbait gaizki ateratzen bada, asko nabaritu ez dadin saiatzen gara. Korrika txiki gehienetan ere egoten gara, antolakuntzan. Aurten, hamazazpi Korrika Txiki eta bi Korrika Gazte daude. Gainera, guk ez ditugu euskaltegiko eskolak bertan behera uzten Korrika garaian, bi lanak uztartzen ditugu.

'Harro Herri' da aurtengo leloa. Sentitzen du AEK-k harrotasunik Korrika antolatzeagatik?

Azaldu nahi izan dugu harro egon behar dugula orain arte egindako guztiarekin, egiten ari garenekin eta egingo dugunarekin. Harrotasunez aldarrikatu behar ditugula gure hizkuntza eskubideak, gure bizitzeko ohiturak... batez ere gaur egun gertatzen ari den guztiarekin. Niri aurtengoa asko gustatu zait, horregatik. Lelo positiboa da.

Instituzioei eskatu behar diegu hizkuntza politika ausartagoak



www.jobilan.eus

Teilatuak.
Fatxadan isolamendu termikoa...

Pintura barnean eta kanpoaldean.

Lan koordinaketak.

620-70 69 36

Txirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · info@jobilan.com



LAIA

ABOKATUAK

Aurrera korrika !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30

Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



egiteko, inbertsio gehiago egiteko... euskararen normalizazioa bizkortzeko, herritarren kontzientziazioan eta aktibazioan eragiteko. Horregatik harro gaude, baina ez gaude konforme, konplexurik gabe aurrera egin nahi badugu, euskara behar dugulako.

Jende askok hartzen du parte Euskal Herriatik kanpo. Nola bizi duzue zuek hori?

Ikaragarria da. 39 Korrika daude munduan ziurtatuta, eta hamabost konfirmatzeke. Ezagun batek deitu zidan esanez Lesbosera zihoala Zaporeak proiektuarekin

«Instituzioei eskatu behar diegu hizkuntza politika ausartagoak egiteko»

Korrika garaian, eta ea materialik emango geniekeen, han Korrika egiteko. Ez da Euskal Herrian soilik egiten den zerbait, hainbat dira Korrikak dituen ahizpak. 1980an hau egitea erabaki zutenek ikusiko balute, horiek bai egongo liratekeela harro.

Ze espektatiba daukazue aurtengo Korrikarako?

Egia esan, uste dugu Donostian bukatzen zelako eduki zuela arrakasta hori azkeneko Korrikak. Baina lekukoa hartu zuten eragile gehienek errepikatuko dute aurtan, eta jende berria ere sartu da. Hortaz, konturatu gara arrakasta ez zela izan bukaerarengatik soilik, gero eta jende gehiagok parte hartu nahi duela ikusi dugu. Badago lekukoa eramatea oparituko duenik, hainbat familia elkartu eta kilometro bat erosi dutenak... Oso polita da. Emozio leherketa bat.

Antiguo
AUTOESKOLA
Teorikoa euskaraz ere

Tolosa hiribidea, 15 (sarrera Antonio Arzak kaletik) · 943-10 60 94

IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK

Eraiki dezagun euskara

Mundaiz bidea, 10, 2. solairua - 24. bulegoa
20012 DONOSTIA - Tel.: 943-42 41 21 - www.ipuru.com

Korrika Kulturala



AIETE

MARTXOAK 23, LARUNBATA

11:00etan:

Horma irudiaren margoteka.

11:15ean, Jolastokian:

Aieteko I. Herri Kirol Pentatloi herrikoa.

14:00etan, ACD elkartean:

Bazkaria.

18:00etan:

Korrikari harrera.

ALTZA

MARTXOAK 16, LARUNBATA

14:00etan, Altzania kultur elkartean:

Barrikotea.

17:00etan, Altzania:

Bakarriketa: *Ikea-riya* (Ion Martinez Txiki).

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

19:00etan:

Casares Kultur Etxean, Soziolinguistika Klusterraren eskutik, 1950-1970eko hamarkadetan Altzara heldutako etorkinen integrazio soziolinguistikoari buruzko aurkezpena.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

10:00etan:

Korrika Txikia.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

17:00etan, Herrerako plazan:

Gaztelekuak eta haurtxokoak antolatutako jolasak eta musika eskolako ikasleen emanaldia.

19:00etan, Kaxkoan:

Urteetako Gau Eskolari eta Euskaltegiko irakasleei aitorza.

20:00etan, Euskal Giroa elkartean:

Afaria eta musika kalean.

AMARA BERRI

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

19:00etan, auzoan zehar:

Kantujira.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

Goizean zehar:

Korrika Txikia.

Arratsaldean:

Erraldoiak, dultzaineroak, horma irudiaren margoketa, peto tailerra eta lekuko tailerra izango dira, gaztelekuaren eta haurtxokoaren eskutik.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

Auzoan zehar:

Trikitilariak.

ANTIGUA

MARTXOAK 16, LARUNBATA

Goizean, auzoan zehar:

Bilbide musikatua.

16:30ean:

Haur jolasak.

19:00etan:

Buruhandien kalejira.

MARTXOAK 18, ASTELEHENA

19:00etan, kultur etxean:

Kantu Mintegiaren kantaldia.

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

12:00etan, EHUko Santamaria

eraikineko auditorioan:

Bizkarsoro filmaren proiektzioa.

19:30ean, Txirain elkartean:

Herenegun taldearen saio akustikoa eta elkarrizketa.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

12:00etan, Gaskonia plazatik:

Bere Egin Ninduen Herria irakurtaldi ibilitaria.



Goizean zehar, Txalupagillenen:
Korrika denda.

16:30ean, auzoan zehar:
Trikitaliak.

18:30ean, auzoan zehar:
DJ-ak Txitan.

AÑORGA

MARTXOAK 22, OSTIRALA

19:30ean, Museoan:
Bizkarsoro filmaren emanaldia.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

12:00etan, Harrobiaren plazan:
Zirko tailerra.

14:00etan, Harrobiaren plazan:
Bazkaria eta barrikotea.

17:00etan, Harrobiaren plazan:
Txokolate beroa eta bizkotxoa.
DJ-a.
Amassorrain Ikastolako Korrikaren
inguruko galdetegiaren sari
banaketa.

19:30ean, herritik zehar:
Kalejira.

EGIA

MARTXOAK 15, OSTIRALA

18:00etan, kultur etxean:
Egiako euskalduntzeari eta
alfabetatzeari buruzko dokumentala.

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Goizean, Gazteszenan:
Bizkarsoro filmaren proiektzioa
ikastetxeentzat.

19:00etan, Gazteszenan:
Bizkarsoro filmaren proiektzioa.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

Goizean, Plaza Haundin:
Horma irudiaren margoketa
Lauaizetako gaztetxoekin.

10:30ean:
Korrika Txikia.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

Plaza Haundin:
Egihurgunearekin, haur
txikientzako petoak.

17:00etan, Plaza Haundin:
Tailerrak, gaztelekuaren eta haur-
txokoaren eskutik.

19:00etatik aurrera, auzoan zehar:
Triki-poteoa KañabiKaña
trikitaliarekin eta txistulariekin.



Maldak malda, Altza korrika

ERDIALDEA

MARTXOAK 15, OSTIRALA

19:00etan, Clara Campoamor plazatik hasita:

Bertsopoteoa Beñat Gaztelumendirekin eta Nerea Elustondorekin.

MARTXOAK 16, LARUNBATA

12:00etan, Kontxako erlojuetan, Clara Campoamor plazan eta Manterolan: Eskola abesbatza.

17:00etan, Kontxako erlojuetan: Txalapartariak.

17:00etan:

Eskola dantza taldea dantzan eta trikitilariak auzoan zehar.

GROS

MARTXOAK 16, LARUNBATA

19:00etan, Okendo Kultur etxean: *Esnatu Naiz* kabareta.

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

19:00etan, Koba hostelean: *Korrika eta presaka* bakarrizketak: Maialen Sorzabalbere, Ander Malbadi eta Mikel Irazusta.

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

19:00etan, Okendo Kultur Etxean: Mendia eta natura. *Bhaguirathi III, hego mendebaldeko ertza* ikus-entzunezkoa.

20:00etan, Marruma elkartearen: *Barry Barrez* umorezko bakarrizketa.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

09:45ean eta 15:30ean, auzoan zehar: Korrika Txikiak.

19:30ean, Mala Gissona tabernan: Neu Troiaren kontzertua.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

12:00etatik aurrera, Katalunia plazan: Korrika festa!

IGELDO

MARTXOAK 22, OSTIRALA

18:00etan, herrian: Korrika Txikia. Ondoren, denentzako oturuntza.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

20:30ean, Antiguan: Igeldokoen kilometroa Mikelete pasealekuaren eta Satrustegi hiribidearen artean.

INTXAURRONDO

MARTXOAK 15, OSTIRALA

19:30ean, Intxaurrendoko kultur etxean: Koldo Izagirrearen eta Joseba Tapiaren emanaldia.

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

19:00etan, Intxaurrendoko kultur etxean: *Bizkarsoro* filmaren emanaldia.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

10:30ean, Intxaurrendoko ikastolatik: Korrika Txikia.

Eguerdian, Intxaurrendotik Egiara: Lauaizetako Korrika.

17:30ean, Bernart Etxepare plazan: Intxhaurguneko eskutik, txapa eta peto tailerra.

18:15ean: Korrikako mezuaren irakurtaldia eta merendola.

19:00etan, Zulo Zahar elkartearen: Erik Urbietaren eta Ander Malbadien bakarrizketak.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

12:00etan, Sagastiederren: Kantujira.

16:45ean, Bernart Etxepare plazan: Pagoaren landaketa.

17:00etan, Bernart Etxepare plazan: Haurtxokoaren eta gaztelekuaren eskutik, jolasak.

19:00etan, Bernart Etxepare plazan: Plaza dantzak.

20:30ean, Sagastiederren: Salda bero-Korrika gero! Korrikari harrera.

MARTUTENE

MARTXOAK 23, LARUNBATA

14:00etan, Txapel Aundi elkartearen: Auzo bazkaria, babarrun jana.


LOIOLAKO ERIBERA

MARTXOAK 15, OSTIRALA

17:00etan, Maria Zambrano plazan: Korrikako arroparen salmenta.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

17:00etan, Paloma Miranda plazan: Peto tailerra musikaz girotuta.



CACTUS
T A B E R N A

943-05 41 67

PLAZA BERRI · EGIA

PARTE ZAHARRA

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

18:30ean, San Telmo museoan:
Nortasuna Sarean 2024. Komunikazioa adimen artifizialaren menpe? hitzaldia.

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

19:30ean:
Bakarriketa-poteoa Maialen Sorzabalbere, Mikel Irazusta eta sorpresa batekin. Ibilbidea: Ikatz kalea, Bretxa, San Lorenzo, Esterlines.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

20:00etan, Kresalan:
Korrika Kantuz kantaldia.

00:00etan, Herria tabernan:
Korrika-Karaokea.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

11:00etan:
Buruhandiak eta erraldoiak, Bidebietako gaiteroek lagunduta.

12:00etan, Plaza Berritik abiatuta:
Kantujira.

14:00etan, Plaza Berrian:
Euskararen aldeko argazkia.

14:30ean, Arrano Beltza elkartearen:
Bazkari herrikoia.

17:00etan, auzoan zehar:
Kitadelpare txaranga.

17:30ean, Plaza Berrian:
Mutxikoak.



ZUBIETA

MARTXOAK 16, LARUNBATA

18:30ean, Kaxkapen:
Bizkarsoro filmaren emanaldia.

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

20:30ean, frontoian:
Korrika aurretiko afari herrikoia.

22:45ean:
Korrika Zubietan!

BEGIRA... KORRIKA BADATOR!!

23. korrika
HARRO HERRI

Irudirik Baionazart
2024ko martxoaren 14tik 24ra

HERRI AMETSA IKASTOLA

www.herriametsa.eus DONOSTIA

naiz:

hamaik

ARGIA

aek
23.korrika

Irundik Baionarat 2024ko martxoaren 14tik 24ra

DONOSTIAN



HARRO HERRI

IRUTXULOKO HITZAREN kilometroa

21:22


Idiakez kalearen eta Askatasunaren hiribidearen arteko izkinatik Santa Katalina zubiraino.




- 1 MARTUTENE · 18:12**
Martutene pasealekua, Irasmoeñe kalea, Goizueta kalea eta Martutene pasealekua.
- 2 TXOMIÑENEA – LOIOLA · 18:30**
Antzieta pasealekua, Loiola zeharbidea, Urbia kalea, Aralar Mendia kalea eta Loiola zeharbidea.
- 3 LOIOLAKO ERIBERA · 18:43**
Nemesio Etxaniz kalea, Bartzelona hiribidea eta Gregorio Ordoñez kalea.
- 4 AMARA BERRI · 18:50**
Isabel II.aren hiribidea, Madril etorbidea, Anoeta pasealekua, Anoeta estadioa, Madril etorbidea, Pio XII.aren biribilgunea, Pedro Manuel Callado kalea, Jose Maria Salaberria kalea, Familia Santu kalea, Errondo pasealekua, Udaltzaingoaren egoitzaren biribilgunea, Pedro Manuel Callado kalea, Pio XII.aren biribilgunea eta Antso Jakitunaren hiribidea.
- 5 AMARA · 19:17**
Easo kalea, Easo plaza, Autonomia kalea eta Easo kalea.
- 6 ERDIALDEA · 19:21**
San Martin kalea eta Mirakontxa pasealekua.
- 7 ANTIGUA – IBAETA · 19:32**
Satrustegi hiribidea, Matia kalea, Bentaberri kalea eta Tolosa hiribidea Añorgaruntz.
- 8 AÑORGA – IBAETA – ANTIGUA · 19:58**
GI-21 errepidetik Añorga Txikiko biribilgunean buelta eman eta, berriro, GI-21 errepidetik Ibaetaruntz, Tolosa hiribidea, Zumalakarregi hiribidea, Sukia kalea, Erregezaintza kalea, Mikelete pasealekua eta Miramar.
- 9 ERDIALDEA · 20:35**
Mirakontxa pasealekua, Zubieta kalea, Askatasunaren hiribidea eta Santa Katalina zubia.
- 10 GROS · 20:49**
Mirakruz kalea, Galtzada Nagusia, Secundino Esnaola kalea, Segundo Izpizua kalea, Claudio Delgado Doktoarearen kalea, Nafarroa hiribidea, biribilgunean buelta Zurriolaruntz, Zurriola hiribidea, Kursala eta Kursaleko zubia.
- 11 PARTE ZAHARRA – ERDIALDEA · 21:09**
Salamanca pasealekua, Soraluze kalea, Abuztuaren 31 kalea, Kale Nagusia, Portu kalea, Kaia, Ijentea kalea, Kale Nagusia, Fermin Calbeton kalea, San Juan kalea, Bulebarra, Hernani kalea, Andia kalea eta Idiakez kalea.
- 12 EGIA · 21:25**
Iztueta kalea, Mandasko Dukearen pasealekua, Egia kalea, Ametzagaña kalea, Maria Reina ikastetxean ezkerretara, Karmengo Ama kalea, Ametzagaña kalea eta Polloe plaza.
- 13 INTXAURRONDO · 21:48**
Sibilia kalea–Matigoxotegi, Sibilia kalea, Baratzategi kalea, Txara, Zarategi pasealekua, Mons pasealekuan beherantz, Kotxerak, Atarizar kalea, Intxaurren kalea eta Jose Elosegi hiribidea.
- 14 BIDEBIETA · 22:10**
Pasai San Pedro hiribidea, Joan XXIII.aren pasealekua, Julio Urkixo pasealekua, Serapio Mujika kalea, Joan XXIII.aren pasealekua, Pasai San Pedro hiribidea eta Jose Elosegi hiribidea.
- 15 HERRERA · 22:23**
Herrerako topo geltokia eta San Luis Gonzaga kalea.
- 16 LARRATXO – ALTZA · 22:27**
Txingurri pasealekua, Larratxo pasealekua, Txirrita Bertsolariaren pasealekua, Larratxo pasealekua, Leosiñeta kalea, Lauaizeta kalea, Txapinene kalea, Larratxo pasealekua Pasaiauruntz, Altza pasealekua eta Kasares kalea Pasai Antxoruntz.

Gogoratzen al duzue duela bi urteko Korrika? 2021ean zen egitekoa, baina koronabirusaren pandemiak dena hankaz gora jarri zuen, eta Korrika ez zen birus horren eraginetik at gelditu. Urtebete beranduago iritsi zen, beraz, 22. Korrika, eta ziurrenik horregatik, izugarria izan zen. Milaka eta milaka izan ziren Amurriotik Donostiara egindako 2.500 kilometroetan Korrikaren tarteren batean parte hartu zuten herritarrak.

Donostiarrontzat, gainera, are bereziagoa izan zen, hirian bukatu zelako, Bulebar bete-betean, aurretik ia auzo guztietako kaleetan barrena ibili ondoren. Karmele Jaiok idatzi zuen lekukoaren barruan hamaika egunez eta eskuz esku joan zen mezua, eta bera izan zen amaieran mezua irakurtzeko arduraduna. Horren ostean, festa lehertu zen Donostian, giro paregabearekin. Zuk hartu al zenuen lekukoa? Non harrapatu zenuen Korrika? Gero parranda egin al zenuen? Duela bi urte bizitakoak gogoratzeko argazkiak dituzu hemen, datorren astean datorrenerako motorrak berotzeko.





«Ondo pasatzeko egun bat antolatu nahi dugu»

Naiara Crujeiras | Larratxoko Jai Batzordeko kidea



Naiara Crujeiras, jai batzordeko beste kide batzuekin.

Bederatzi urte pasatu dira Larratxoko Jai Batzordeak Korrikako lekukoa hartu zuen azkeneko alditik. Aurten, ordea, euskararen alde egiteko baliabideak dituztela azaldu du Naiara Crujeiras batzordeko kideak.

Korrikan parte hartuko du Larratxoko Jai Batzordeak, bederatzi urteko geldialdi baten ostean. Zergatik hainbesteko hutsunea?

Ez zegoen gure planetan hainbeste denbora itxarotea berriro Korrikan irteteko, baina diru kontuak direla medio, ezinezkoa egin zi-

tzaigun. Aurten bai, ordea. Aurten baliabideak dauzkagu parte hartzeko. Jaiak nola joan direnaren araberakoak dira diru kontuak, urtero ez baitugu emaitza bera jasotzen. Azkeneko jaiak oso ondo joan ziren, jendetza batu zen Larratxon eta eguraldia ere gure alde egon zen. Oso ondo atera zen dena.

Korrikako iragarki bat ikusi nuen nik, eta batzordeko kideei komentatu nien, ea aurten zer edo zer egiteko intentziorik ba al zegoen. Baiezkoa jasotzean, informazioa eskatu genuen, eta kilometro bat erosi dugu. Aurtengo jaietako prestakuntzarekin bat egiten du Korrikak, eta topera gabiltza, dena prestatzen.

Nondik irtengo zarete? Zein kilometro da zuena?

Larratxo pasealekuan hartuko dugu lekukoa, Kutxa inguruan. Handik, lekukoa Iraleraino eramango dugu, gutxi gorabehera.

Guk ez dugu kilometroa aukeratzten. Larratxokoak garela esaten dugu, eta Korrikaren antolatzaileen eskuetan geratzen gara. Kontuan izaten dute, gure helbidea dutelako. Normalean helbide hori hartu eta distantziak kalkulatzten dituzte, gertuko kilometro bat egokitzeke.

Egin duzue deialdirik?

Deialdia egiteko intentzioa dauka-

TAMAYO ERE
23.korrika
Haro Herri!

TAMAYO
DONOSTIA 1914

110 urte | www.papelieratamayo.com | Legazpi kalea 4

MiKEL
Harategia · Urdaitegia



Juan de Garai kalea, 1,
20008 Donostia
943-21 29 63
615-75 26 33





22. Korrika, Altzatik pasatzen.

gu. Ordutegiak ikusita, 22:30ak aldera pasatuko da Larratzotik, beraz, arratsaldean jolasen bat egitea pentsatu dugu, bereziki haurrentzat, auzokideak giroan sartu daitezzen. Larratzoko plaza apainduko dugu eta petoak apaintzen ere ariko gara. Musika pixka bat ere jarriko dugu.

Zer suposatzen du zuentzat lekukoa hartzea?

Poza, hainbeste urte eta gero. Korrikari eta euskarari laguntzeko aukera paregabea da, eta jendea animatzeko aitzakia on bat. Azken

«Korrikari eta euskarari laguntzeko aukera paregabea da lekukoa hartzea»

finean, jai batzordeak ez badu ezer antolatzen, jendea ez da giroan sartzen. Ondo pasatzeko egun bat antolatu nahi dugu. Gainera, Larratzoko jendea asko animatzen da, urte osoan zehar, antolatzen ditugun jardura guztietan parte har-

tzera. Sarritan galdetzen digute ea zerbait antolatuko dugun.

Nola bizi izan duzue Korrika Larratzon? Nolakoa da giroa?

Nire lehen Korrika da jai batzordean nagoenetik; beraz, ez dakit zer egin izan duten. Normalean, Altzatik jaisten da edo Herreratik igozten da Korrika. Jende asko egoten da, hortaz, eta giroa ere oso ona izaten da. Suposatzen dut, hainbeste urteren ostean, aurtengo giroa oraindik hobea izango dela. Gogoia dago, eta nabaritzen da taldean. Seguru jendea animatuko dela.



LARRE-GAIN

Tolare-Sagardotegia



☎ 943-55 58 46
616-28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA
EREÑOTZU
HERNANI

Zatoz eta gozatu!
Maiatzak 5 arte irekita

«Euskara ikasten ari den norbaitek eramaten du beti Dbusen lekukoa»

Fidel Arizmendi | Dbus enpresako langilea



Fidel Arizmendi (eskuinean), Jose Mari 'Jota' Sanz lankidearekin, Kotxerasen.

Dbus enpresako langileak 22:00ak aldera batuko dira Korrikara martxoaren 23an, Kotxerasko lantoki alboan. 2005eko 14. Korrikan parte hartu zuten lehen aldiz, eta aurtengoa hamargarren aldia izango da beraientzat.

Noiztik parte hartzen duzue Korrikan?

Lehen aldiz 2005ean parte hartu genuen, 14. Korrikan eta aurtengoa

gure hamargarren aldia izango da. Garai hartan, mahai bat jartzen genuen lantoki sarreran eta kilometroa ordaintzeko langileek boron-

datez emandako dirua biltzen genuen. Gaur egun ere, era horretan eskuratzen dugu kilometroa; dirua lortzeko hiru edo lau egunetan mahai bat jarri ohi dugu. Jasotakoarekin, kilometroa erosteaz gain, Korrikako materiala erosten dugu gero zozkatzeko: kamisetak, jertseak, biserak, petoak, giltzatak... Pankartak eta propaganda ere jartzen ditugu eta laster hasiko gara hori prestatzen.

Aurten nork hartuko du lekukoa?

Beti saiatzen gara euskara ikasten ari den norbaitek eraman dezan, baten edo biren artean. Ez dakigu ziur nor izango den, baina euskaltegian ikasten ari den langile batek hartzea da asmoa; horrela egin izan dugu urteotan. Guztira, 600 langiletik gora gaude, gehiengo gidariak gara (400 inguru), baina mekanikariak, garbiketa langileak, administrariak eta ikuskatzaileak ere badaude. Egia esan, euskara ikasten ari direnak gutxi dira. 600 horietatik sei edo zazpi dabilta euskara ikasten. Horietako batzuei galdezka gabilta, ea lekukoa eramatera animatzen diren. Lortuko dugula uste dut.

Non duzue kilometroa?

Hemen bertan hartzen dugu lekukoa, Kotxeras ondoan. Maldan behera egingo dugu korrika Ategorrieta eta Intxaurrenondoko Zaharra lortzen dituen kale hasieraraino.



Abuztuak 31 kalea, 23
Parte Zaharra, Donostia
943-42 63 62
www.restaurantegandarias.com



Batzuetan gorantza egin izan dugu, beste batzuetan, beherantz, eta aurtengoan 22:00ak aldera izango da gure txanda.

Zenbat pertsona elkartu ohi zarete?

Egunean bertan, 40 pertsona inguru elkartu ohi gara, baina, diru aportazioa egiten dutenak askoz gehiago dira. Ordutegiak ere baldintzatzen gaitu. Batzuk lanean izango dira, gaueko txanda edo garbiketak direla eta. Beste batzuk afaria prestatzen arituko gara, baina gero eskapatzeko aukera izango dugu. Korrika bertatik igarotzean jende mordo biltzen gara. Gainera, larunbata izanda, haurrak ere etorriko dira ziurrenik.

Afari-merienda egiteko asmoa dugu aurten ere, gure kilometroa datorren orduaren arabera afariko ordua moldatu ohi dugu. Ategorrietako elkartean batuko gara, gertu izanda oso ondo datorkigu.

Zuentzako zer suposatzen du lekukoa hartzeak?

Euskarari bultzada egitea da. Enpresa mailan aurrerapenak izan dira, baina, mantsoegi. Hemen bada euskara zerbitzua, Emunek ematen du. Online formakuntzak eta ikastaro txikiak izaten dira, eta bestela, euskaltegiko matrikula ordaindu egiten zaie langileei. Erabilera handitu da, eta hori enpresako txosten, ohar eta zerbitzuetan nabari da. Ikuskatzaileen lanak eragina izan



Dbuseko langileak, 20. Korrikan lekukoa hartu zuten momentuan, Intxaurren.

«Hizkuntz eskubideak ez dira beti bermatzen; euskaraz jakin gabe gidari izan zaitezke»

du zentzu horretan. Dena den, hizkuntz eskubideak ez dira beti bermatzen eta oraindik ere euskara ezer jakin gabe gidari izateko aukera bada. Oposaketa batzuetan, %30ari ez zaio hizkuntza eskakizunik eskatzen; azkenean badakigu zein den hizkuntza hegemonikoa... **Korrikaz gain, euskararekin zein harreman duzue?**

Aspaldi Egunean Behin aplikazio-taldetxo bat sortu genuen eta langile askok bertan hartzen dugu parte. Igela-motela izena jarri genuen talde horri, Dbus enpresako irudiari keinu eginda, eta 50 bat lankidek parte hartzen dugu. Jokoaz gain, euskararekin lotura duten mobilizazioak eta istorioak partekatzen ditugu bertan.

Bestela, Korrikaren inguruan ere, Donostian bukatu izan den urteetan (2011 eta 2022) boluntario aritu gara jakiak eskainiz dirua lortzeko. AEKren barruan kontaktuak zein lagunak ditugu irakasle aritzen direnak eta elkarlanean aritzen gara.



ARROPA ETA DEKORAZIO NAUTIKOA



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA | Tel./Faxa: 943-42 47 97 | enbatadenda@gmail.com | www.enbata.eus

«Zazpi probintzietako gazteak etortzen dira, diasporako gazteekin batera»

Alaitz Elizburu Agirre - Euskarabenturako kidea



Euskarabenturaren jarduera bat.

Uztailan izaten den arren, edozein egun baliatzen dute Euskarabenturako kideek elkartu eta eguna elkarrekin pasatzeko. Korrika Donostiatik igarotzen den eguna baliatuko dute «topaketa» horietako bat egiteko eta Korrikaren lekukoa hartzeko; Antiguan hartuko dute.

Zer da Euskarabentura?

Hamabost eta hamazazpi urte bitarteko gazteei Euskal Herria ezagutzera eramaten dituen oinezko espedizioa. Hilabete osoa irauten duen espedizioa da, eta uztailaren lehen Atharratze-Sorholuzetik (Zuberoa) abiatuko gara, eta uztailaren 31n Getxon (Bizkaia) bukatuko dugu.

Duela zenbat urte hasi zineten Euskarabenturarekin?

Lehenengo aldia 2017an izan zen,

baina 2015etik elkartearen prestaketa lanetan hasi zen. Jada pasatu dira urte batzuk.

Zer nolako harrera izan du espedizio ibiltari horrek? Gorakada nabaritu duzu?

Bai. 2017tik, izen ematearen gorakada nabaritu dugu. Egia da pandemia garaian gauzak pixka bat okerrera joan zirela, eta alde batera utzi behar izan genuela. Geldialditxo bat egin behar izan genuen, eta urte horretan

ez zen espediziorik egin. Gero esan dezakegu izen emate kopuru hori berreskuratu dugula. 125 gazte joan daitezke, momentuz, espediziora, eta 125 baino gehiago izan dira izena eman dutenak.

Iazko datuez hitz egiten badut, esan dezaket espedizio bakoitzeko, batez beste, pertsona bat baino gehiago. Plazak oso kotizatuta daude, eta jende asko, tamalez, ez da espediziora sartzen, plazarik gabe geratzen direlako.

Zuen helburuen artean euskara eta euskal kultura sustatzea dago. Helburu horiek betetzea lortzen duzue?

Hau da, gazte horiek inplikatuagoak sentitzen dira euskal kulturarekin eta euskararekin?

Bai, argi eta garbi. Azken finean, badakite nora doazen. Beste helburuetako bat euskaldun gazte horien sare bat osatzea da. Kultura ere sustatzen dugu, eta geografikoki ere Euskal Herria zeharkatzen dugu. Ezinezkoa da herri guztietara iristea, baina hainbat herritatik igaroko gara, eta zazpi lurraldeetatik. Horrekin ere, geografikoki herriak mapan kokatzen ikasten dute.

Oso aberasgarria izaten da, eta ikusten dugu behin espedizioa bukatuta ere, gazte horien artean benetako sare bat osatzen dela eta harremana mantentzen jarraitzen dutela. Nolabaiteko eragina izan duela ikusten dugu, eta ez txikia. Euskarabentura amaitu eta gero ikusten dugu herrigintzan inplikatzen eta aritzen direla, euskalgintzan eta herrigintzan zentratuta.

Parte hartzaileak eta begiraleak Euskal Herri osokoak zarete, ezta?

Zazpi probintzietako gazteak etortzen dira espediziora, eta, horiez gain, diasporatik etortzen dira gazteak daude. Eta, gero, lantaldean, berdina gertatzen da, zazpi probintzietako gazteak —eta ez hain gazteak— elkartzen gara. Euskal Herriko



probintzia guztietako gazteak joatea da bermatu nahi duguna, oreka bat bermatu nahi dugu. Oso aberasgarria izaten da, euskalki desberdinak entzuten dira eta bakoitzak bere errealitatea du. Euskal Herriko herrietan euskararen errealitate eta erabilera ez da berdina. Orduan, bi-zipenak partekatzen dituzte.

Euskal Herri osotik ibiltzen zarete, baina Donostian soilik hartu behar duzue lekukoa?

Bai. Kilometroa hiri handietan hartzen saiatzen gara, horrela Euskal Herriko gazteek erraztasun gehiago dituzte bertara iristeko. Eredu

«Guk euskaingintzan jarduten dugu bizi dugulako, eta benetan euskaraz bizi nahi dugulako»

horretan biltzen gara guztiok, eta eguneko egitaraua antolatzen dugu. Euskarabenturako topaketa egiten dugu, eta, bide batez, lekukoa hartzen dugu.

Zer suposatzen du zuentzat Korrikaren lekukoa eramateak?

Sentimendu asko aldi berean. Azken finean, guk euskaingintzan jarduten dugu bizi dugulako, eta benetan euskaraz bizi nahi dugulako. Gainera, hori da gure helburuetako bat, eta euskararen transmisio hori egin nahi dugu gazteengan. Baina bueno, zirrara eta konpromisoa sentitzen ditugu, eta egun seinaltua da guretzat.

Zer da euskara zuretzat?

Euskara da ni neu naizena. Izaera, nortasuna... guztia da euskara niretzat. Euskaraz jaio naiz, eta eskubide bat da, aldarrikatu beharreko eskubide bat. Bizitzeko modu bat da.

Gora Korrika!



Urrats
euskaltegia

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia



Egin zaitez Korrika laguntzailea

APPa
deskargatu


EKIN KORRIKARI!

15 euroren truke, garrantzitsuen lortuko duzu:
AEKren euskaltegi laguntzea. Horrez gain, pina
eta abantailei buruzko informazioa jasoko dituzu.

æk
23.korrika

HARRO HERRI

Irundik Baionarat



korrika.eus

euskara hurbil, zu urrun heltzeko

æk

euskara
praktikoa

DONOSTIA

ANTIGUAKO AEK

Erregezain, 22
943-21 80 88 · antigua@æk.eus

AMARA BERRI AEK

Ordoñez, 7 (ARCCO parean)
943-47 45 92 · amara@æk.eus

GROSEKO IRRINTZI AEK

Iztueta, 3, behea
943-32 76 11 · gros@æk.eus



Jose Elozegi hiribidean hartu genuen lekukoa 2022an, Korrika amaitzeko kilometro gutxi batzuk baino ez zirenean falta.

IRUTXULOKO HITZAK ere bat egingo du 23. Korrikarekin

Badator Korrika, eta, betiko legez, IRUTXULOKO HITZAK euskararen aldeko lekukoa hartuko du Donostian aurten ere. Erdialdean izango da, iluntzean, eta denak gonbidatuta zaudete gurekin batera korrika egitera. Horrez gain, egunaren jarraipen berezia egingo dugu webgunean eta sareetan, eta zozketa bereziak ere prestatu ditugu.

Tipi-tapa, tipi-tapa, Euskal Herria zeharkatzen ari da Korrika, eta hilaren 23ko arratsaldean helduko da Donostia-
ra. Hirian lekukoa hartuko duten 145 eragile eta norbanakoak prest daude, eta IRUTXULOKO HITZA ez da gutxiago izango.

Erdialdean hartuko dugu euskararen aldeko lekukoa aurten, Idia-kez kalearen eta Askatasunaren hi-

ribidearen arteko izkinan, 21:22ean. Loiolaetxea elkartearen eskutik jasoko dugu eta Donostiako Gazteak eragileari pasatuko diogu, Santa Katalina zubiaren hasieran.

Lantaldeko bi kidek hartuko dute lekukoa: Xalba Ramirez Cruz eta Olatz Balda Sagarzazu kazetariak. Hala ere, gure kilometroan ez gara bakarrik egongo, ohiko legez, HITZAKide batek gurekin batera har-

tuko baitu lekukoa. Zozketa bidez hautatuko dugu gurekin korrika egingo duen laguna, eta gaurtik aurrera hartu dezakezue parte zozketan, gure webguneko HITZAKideen Txokoa atalean.

Hori gutxi balitz, beste zozketa interesgarri batzuk ere prestatu ditugu Korrikaren bueltan. Hain zuzen ere, Korrikako hainbat produktu berezi zozkatuko ditugu gaurtik aurrera, eta HITZAKideen Txokoa atalean hartu dezakezue parte. Horrez gain, eskaintza berezi bat prestatu dugu: Korrikak irauten duen bitartean harpidetuz gero, soilik 35 euro ordainduko dituzte lehenengo urtean harpidedun berriek, eta Errigoraren saski baten zozketan sartuko dira.

Bestalde, Korrikak Donostiako kaleak zeharkatzen dituen bitartean, hiriko txoko batetik bestera ibiliko gara, egunaren jarraipen berezia egiten. Horrela, egunak aurrera egin ahala, gure webgunean zein sare sozialetan ikusi ahalko dituzue Korrikako argazkiak eta bideoak. Prest al zaudete gurekin batera beste Korrika egun bat bizitzeko?

INDO

MIMETIKA



**Pertsonalizatutako
progresiboak
errealitate
birtualarekin**

Errealitate birtuala doan probatu!

Lente hoberenak lortzeko azken teknologia erabiltzen dugu.

Zatoz ezagutzera!

OPTICALIA ATOTXA | OPTICALIA AMARA | OPTICALIA CENTRO

Kalkutako Teresa Plaza 7
Donostia

T. 943 29 75 09
☎ 747 47 53 29

Madril Etorbidea 11
Donostia

T. 943 44 43 81
☎ 747 42 84 92

Hernani Kalea 21
Donostia

T. 943 43 48 06
☎ 747 49 13 99